



ZAIN-BARNEKO UROGRAFIA UROGRAFIA INTRAVENOSA

- Erradiologiako azterketa bat osatzea da **ZAIN-BARNEKO UROGRAFIA** bidezko miaketa egitearen helburua, giltzurrunak eta gernu-bideak baloratzeko.
- Horretarako, iododun kontrastea sartzen da zainetik, eta ostean, erradiografiak egiten dira, kontraste hori giltzurrunetatik kanporatu ahala.
- Miaketa honek 1 – 2 ordu artean irauten du eta ez da mingarria.

GERTA DAITEZKEEN KONPLIKAZIOAK

- CITRAFLEET libratzeko erabiltzen den soluzioa denez, haren ondorioz **BEHERAKO URTSUA** gerta daiteke.
- Zain-barneko kontrasteak injektatzean, nahiko ohikoa da honelakorik agertzea: **GORAGALEA, BERO-SENTSAZIOA, AHOKO ZAPORE TXARRA, edota PIXA EGITEKO GOGOIA**, besteak beste.
- **IODODUN KONTRASTEELI ALERGIA** edukiz gero, proba eskatu duen medikuari eta erradiologiari jakinarazi behar diezu.
- **MEDIKAMENTUREN BATI ALERGIA** diozun ere esan beharko diezu (dokumentatua); izan ere, hala bada, medikazio bat hartu beharko duzu aurretik (guk emango dizugu).
- **GAIXOTASUNEN BAT** edukiz gero, jakinarazi behar da (bihotzekoa, giltzurrunetakoa, asma).
- **EZ DA PROBA EGIN BEHAR HAURDUN EGONEZ GERO, edo HORREN SUSMORIK EDUKIZ GERO**, erradiazio ionizatzailea erabiltzen delako.

PAZIENTEA PRESTATZEA

- GARRANTZITSUA** da hemen azaltzen den **PRESTAKETA** ondo egitea, hesteetan janari-hondarrik gera ez dadin. Hondar horiek zaildu egingo lukete ahia ondo pasatzea nahiz proba bera behar bezala interpretatzea.
- Miaketa egin baino hiru egun LEHENAGOTIK hasita**, hondar gutxi sorrazten duen dieta bete behar da:

- La exploración mediante **UROGRAFÍA INTRAVENOSA** tiene como objetivo el estudio radiológico dirigido a la valoración de los riñones y las vías urinarias.
- Para ello se introduce un medio de contraste yodado por la vena, realizándose las radiografías conforme se va eliminando dicho contraste a través de los riñones.
- Es una exploración que suele durar de 1 a 2 horas y no es dolorosa.

POSIBLES COMPLICACIONES

- El efecto de la solución evacuante CITRAFLEET consiste en una **DIARREA ACUOSA**.
- Durante la inyección del contraste intravenoso, con cierta frecuencia, pueden aparecer **NAÚSEAS, SENSACIÓN DE CALOR, MAL SABOR DE BOCA, DESEOS DE ORINAR** u otros efectos anómalos.
- Deberá advertir al médico que solicita la prueba y al radiólogo si es Ud. **ALÉRGICO A LOS CONTRASTES YODADOS**.
- También debe advertir si padece **ALGUNA ALERGIA MEDICAMENTOSA** (documentada), en cuyo caso deberá tomar una medicación previa, ya pautada, que se le facilitará.
- También notifique si padece **ALGUNA ENFERMEDAD CONOCIDA** (corazón, riñón, asma).
- Como en toda exploración que emplea radiación ionizante, **NO DEBERÁ SOMETERSE A ELLA SI ESTÁ EMBARAZADA O SUPONE ESTARLO**.

PREPARACIÓN DEL PACIENTE

- Es **IMPORTANTE** que realice correctamente la **PREPARACIÓN** que se detalla a continuación, con objeto de que su intestino esté libre de residuos alimenticios que dificultarían tanto la progresión de la papilla como la correcta interpretación de la prueba.
- Durante los tres días ANTERIORES** a la exploración se seguirá una dieta pobre en residuos:

HAUXE HAR DEZAKEZU	EZIN DUZU HAU HARTU
Pastak	Entsaladak, barazkiak eta lekaleak
Saldak (ez barazkienak)	Fruta
Okela eta arraina, plantxan edo egosita	Patatak
Gazta gogorak	Okela eta arraina saltsan eta erregosita
Zuntz gabeko gailetak	Hestebeteak
Ogi txigortua	Ogia
Iragazitako fruta-ura	Koipeak eta pastelak
Kafea, tea eta gas gabeko likidoak	Txokolatea eta gasdun edariak

PUEDE TOMAR	NO PUEDE TOMAR
Pastas	Ensaladas, verduras y legumbres
Caldos (no de verduras)	Frutas
Carnes y pescados a la plancha o hervidos	Patatas
Quesos duros	Carnes y pescados en salsa o estofados
Galletas sin fibra	Embutidos
Pan tostado	Pan
Zumos filtrados	Grasas y pasteles
Café, Té y líquidos sin gas	Chocolate y bebidas con gas

 Miaketaren AURREKO EGUNEAN:

- Arratsaldeko 16:00etan: **LEHENENGO DOSIA: ZORROTXO BAT CITRAFLEET** hartuko duzu urarekin nahasia (basokada handia); eta, hurrengo 3 orduetan, apurka-apurka, 2 litro likido edan beharko duzu gutxienez: ura edo edari isotonikoak (Aquarius, adibidez), fruta-ur iragaziak, saldak, infusioak...
- Gaueko 22:00etan: **BIGARREN DOSIA. ZORROTXO BAT CITRAFLEET** hartuko duzu urarekin nahasia (basokada handia); eta, hurrengo 3 orduetan, apurka-apurka, 2 litro likido edan beharko duzu gutxienez: ura edo edari isotonikoak (Aquarius, adibidez), fruta-ur iragaziak, saldak, infusioak...
- **EZIN DA afaldu.**

 MIAKETAREN egunean:

- **BARAURIK** joan behar zara.
- Prestaketa hau guztia paziente helduentzat da, eta miaketa agindu duen fakultatiboak gainbegiratuta egongo da beti.
- **OSPITALERATUTA** bazaude, zure probarako **ZAINKETEZ ARDURATZEN DIREN KIDEEK** gainbegiratuko dute zure prestaketa.
- **GIBELEKO EDO BIHOTZEKO GUTXIEGITASUN LARRIA** baduzu, kontsultatu medikuarekin.

BEREN BEREGI EMANDAKO BAIMENA

Praktika Kliniko Egokiak eta pazienteen eskubideen defentsa direla-eta, eskatzen dizugu idatziz adierazteko proba egiteko baimena ematen duzula. Beraz, proba egiteko eskatzen den egunean, **Baimen Informatua** emango dizute; eta hura sinatu ezean, ezingo da proba egin.

 Día ANTERIOR a la exploración:

- A las 16 de la tarde. **PRIMERA DOSIS:** Tomará un sobre de **CITRAFLEET** disuelto en 1 vaso grande de agua, seguido de 2 litros como mínimo de agua o bebida isotónica (Aquarius, por ejemplo), zumos colados, caldos, infusiones.... a beber lentamente durante las siguientes 3 horas.
- A las 10 de la noche **SEGUNDA DOSIS:** Tomará el otro sobre de **CITRAFLEET** disuelto en 1 vaso grande de agua, seguido de 2 litros como mínimo de agua o bebida isotónica (Aquarius, por ejemplo), zumos colados, caldos, infusiones.... a beber lentamente durante las siguientes 3 horas.
- No se puede cenar

 Día de la EXPLORACIÓN:

- Debe acudir **EN AYUNAS**.
- Esta preparación va referida al paciente adulto, y siempre ha de ser supervisada por el Facultativo que prescriba la exploración.
- En el caso que Ud. se encuentre **INGRESADO** en el Hospital, la preparación para la prueba la supervisará el **PERSONAL RESPONSABLE DE SUS CUIDADOS**.
- Si padece **INSUFICIENCIA RENAL O CARDIACA GRAVE** consulte con su médico.

AUTORIZACIÓN EXPRESA

Las Buenas Prácticas Clínicas y la defensa de los derechos de los pacientes nos obligan a solicitarle, por escrito, una autorización formal para poder realizarle la prueba. Por lo tanto, el día de la solicitud de la prueba le será entregado un **Consentimiento Informado** sin cuya firma no podrá realizarse dicha prueba.